



ARNAS POLIGRAFIA

ZER DA ARNAS POLIGRAFIA?

Proba **DIAGNOSTIKO** bat da, eta **ARNASKETA** aztertzen du **LOALDIAN zehar** (lotan gauden bitartean). Artatu gabeko gailu eramangarriak erabiltzen ditugu, **POLIGRAFO** izenekoak.

Proba hau **LOALDIKO ARNAS TRASTORNO** bat, **LOALDIKO APNEA**, adibidez, izan dezakeelako **susmoa handia** dagoen pazienteetan eskatzen da. Proba erraza da, eroso eta kostu efektibokoa.

Bi gailu mota dugu, arnasketa aztertzeko duten sentore-kopuruaren arabera. Gailu bat edo bestea **aukeratzen da**, **pazientearen ezaugarrien** eta proba egiteko **lehentasunaren** arabera:

- **Poligrafo soilenek** 2-4 sentore dituzte. Beti dute gutxienez aire-fluxuari dagokion sentore bat eta oximetriari dagokion beste bat (odoleko oxigenoaren zeharkako neurketa). Normalean, zurrungen sentore bat eta bihotz-pultsuari dagokion beste bat ere izaten dute.
- **Kanal anitzeko poligrafoek** sentore horiez gain, arnas esfortzuaren seinaleak, gorputzaren posizioa, mugimendua eta abar erregistratzen duten beste batzuk dituzte.

NON ETA NOIZ EGITEN DA ARNAS POLIGRAFIA?

Proba hau, normalean pazientearen **ETXEAN** egiten da, lo egitera ohituta dagoen lekuan.

Proba egin baino egun batzuk lehenago harremanetan jarriko gara zurekin **telefono** bidez, zure **HITZORDUA** adosteko.

Proba zein egunetan, orduetan eta non egingo dizuten adieraziko dizute.

Proba-egunean bizitza normala egin dezazun gomendatzen da, eta edari alkoholodunak edo bizigarriak (kafea, koladun freskagarriak) ez edatea. Medikazioaren bat hartzen baduzu, ez gelditu hura hartu gabe.

Loaren Unitatean Poligrafoaren datuak jasotzeko hitzordua emanez gero, Santiago Ospitalera jo beharko duzu. B pabiloiko 2. Solairua. Artatua izateko, itxaron ezazu itxarongelan.

Loaldiko Unitateko **tekniko** batek gailua nola erabili eta nola jarri azalduko dizu. Gainera, **argibide-orri** bat ere emango dizu, hala nola azterketa gaueko loaldiaren kalitateari buruzko **galde-sorta** bat eta zure datu klinikoak arretan eta ikerketan erabiltzeko **baimen informatua** emateko agiria. Azkenik, hurrengo egunean gailua **non itzuli** esango dizu.

Higiene-neurriak eta azterketarako erraztasuna tarteko, gailua **arroparen gainean jarri behar da**: elastikoa edo pijama.

Hurrengo egunean jaikitzen zarenean, gailua adierazi zaizun moduan kendu behar duzu eta poltsan sartu. **Bete** loaldiaren kalitateari buruzko galde-sorta, sinatu baimen informatua (ados bazaude), eta gorde biak poltsan.

Itzuli poligrafoa LOALDIKO UNITATEAREN IDAZKARITZAN goizeko 10ak baino lehen.

EMAITZAK

Proba egin ondoren, **erregistroa aztertuko da** ekipo informatikoekin, eta proban lortutako **emaitzaren txostena** egingo da.

- Loaldiko arnas trastorno adierazgarria **BAZTERTZEN BADUGU**, zuk **EZ DUZU TRATAMENDURIK BEHAR**. Emaizten behin betiko txostena igorriko zaizu, baina lo hobeto egiteko gomendioak ere
- Loaldiko arnas trastorno adierazgarria **BAIEZTATZEN BADUGU**, zuk **TRATAMENDUA BEHAR DUZU**. Aurrez aurreko kontsultarako, gutun bidez bidaliko dizugu hitzordua.
- Emaiztekin **arazoak badituzu**, edo-eta froga **ez dela bailiogarria** ikusten baduzu, beste hitzordu bat emango zaizu telefonoz, **ARNAS POLIGRAFIA ERREPIKATZEKO** edo beste proba batzuk egiteko.

Edozein delarik frogari buruzko zalantza Loaren Unitateko idazkaritzarekin harremanetan jar zaitezke, honako helbide honetan **945 007 290** (goizeko 8etatik 15etara).